

Garralda berreskuratua

Leon Pochelu 'Garralda' apez irakasleak 'Herria'-n argitaratutako artikulua batu dituzte liburu batean

JUAN LUIS ZABALA


Leon Pochelu *Garralda* apez irakasleak *Herria* asteakarian 1947ko martxotik 1956ko otsailaren 23a arte argitara emandako 76 artikulua biltzen dituen liburu atondur du Piarres Aintziart idazleak, *Jakitatez jakitate* izenburuarekin. Gai zientifikoak jorratu zituen Garraldak lan horietan, euskara zalu, eraginkor eta aberatsean. Erroteta argitaletxeak argitaratu du liburu, Euskaltzaleen Biltzarra eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak bultzaturik.

Artikuluak idatzi zituen garaian, Uztaritxeko Seminario Tipian fisika eta matematika irakasle zen Garralda, eta eskolatan azaltzen zituen gaien ingurukoak dira artikulua. «Ikasle zientifikoaren erakasle gaitasun handikoa» zen Garralda, Aintziartek liburuaren aitzinsolasean azaldu duenez, «famaren oihartzuna oraindik entzuten baita ikasle ohien ezpainetan».

«Erakusten ditugun artikulua hauek ulertterrexak dira, eta fidagarriak», azaldu du Aintziartek aitzinsolasean. «Orduko asmaketa zientifiko eta teknikoez ari zaigu Garralda, eguneroko hizkuntza simple batean, klase gelan eman izan den ahoko azalpena kasik den bezala paperaren altzora lerratu balitz bezala. Dena irudi, gogoeta desberdin, digresio».

ZIENTZIAREN ATZEAN, GIZARTE GIROA.

Garraldak artikulua horiek idatzi zituen garaian Euskal Herrian eta Uztaritxeko Seminario Tipian «halako *Weltanschauung* bat» zegoen, Aintziarten ustez, «mundua-



Piarres Aintziart, *Jakitatez jakitate* liburuaren apailatzailea. ELODIE DAGUERRE

ri buruzko ikuspegi bat, gure herri xumea estaltzen bezala zeukana. Bigarren gerla handia doi-doi bururatua zen, apez erakasle zenbait gerlan ibiliak ziren, preso egonak eta, psikologi arrunt eta erretxegian sartuz, erran dezakegu frantses abertzale itzuli zirela etxerat: herri batentzat sofritu, herria mai-tagarri». Horrek guztiak zeharkako isla du Garraldaren lanetan.

«Garraldaren testuak», Ain-

'Herria' asteakarian argitaratu ziren, 1947 eta 1956a artean, liburu osatzen duten 76 artikulua

tziarten ustez, «beren bulgarizazio forman zientifikoak zuzenak izanez ber denboran, halako ideologi usain batean jarriak daude. Geopolitika ez dago sekula urrun, batez ere Errusia beldurgarria aipu delarik, hura baita, *Gerla hotz* aro haie-tan, Gaitzaren ikurra eta Amerika, hoin usu goraipatua delarik, Ongiarena».

Garraldaren ikasle ohi batek, Manu Arretzek, bildu zituen Garraldak *Herria*-n argitaratutako artikulua, eta Jean Claude Iribarren, Piarres Xarriton eta Giller-mo Etxeberriaren laguntza ere izan du Aintziartek *Jakitatez jakitate* liburu apailatzeko lanetan.

Gau bat antzokian

KRITIKA

ANTZERKIA
'2666'

AGUS PEREZ

Emanaldian zehar ez digute argitzen izenburuaren jatorria, baina adituek diote-nez, 2666 Roberto Bolañoren eleberririk osatuena dugu eta ausardia handia behar da bere 1100 eta piku orriekin antzerkirako bertsioa prestatzeko. Seguru asko, liburu irakurri dutenek Alex Rigolaren zirrara berbera sentitu dute, eta nik baino hobeto ulertuko zuten agertokietara eramateko grina, baina kontua da jatorrizko testuaren mardultasunak onerako zein txarrerako baldintzatu duela ikusizunaren emaitza.

Hasteko eta behin nik esango nuke bost ordu irauten duen antzezlan batek barruan bertan eramaten duela bere gabezia nagusia, laburbiltzen ez jakitearena, alegia. Baina testuaren egitura konplexua ikusita, argi dago laburbiltze lan sakona egin dutela Pablo Leyk eta Rigolak berak eszena lanari ekin baino lehen. Bide horretatik, eta ikuslea normala dena baino gehiago ez nekatzearren, bost zati-tan banatu dute antzezlan eta

atsedenaldietariko batean bokatak eta edariak ere banatu ziren, antzokitik bizirik irten gintez.

Atal bakoitzaren hasieran, dagokion zenbakia eta izenburua proiektatzen dira eta testuarekin batera etorri beharko liratekeen irudiak behin baino gehiagotan irudikatzen dira bideo-proiektzioen bidez edo arbel batean idatzitako hitzen bidez. Proiektzioen erabilera oso neurtua da eta ondo integratzen da muntaiaren estetika soilean, baina atal bakoitzari dagokion girotea guztiz idorra da—objektu bakar batzuekin hornitua eta ia kolorerik gabea kasurik gehienetan—, eta biluztasun hartatik Bolañoren testuko deskriptzio ugarietan murgildu eta berak sortutako Benno von Archimboldi pertsonaia misterioitsuaren bila abiatuko gara. Narrazioa puzzle baten moduan eratuta dago eta hainbat jauzi egingo ditu denboran eta espazioan, baina denak izango dira elkarren osagarriak, eta haien bidez egile txiletarraren handitasuna sumatuko dugu, urrutitik bada ere.

Beraz, atzean dagoen lan literarioak gure interesa mantendu du antzokian emandako gauean, baina Rigolaren planteamendua narratibotasun hutsean geratu da, ekintza eszenikoa ia beti bazter utzita. Gainera, mikrofono bidezko sonorizazioak—kaskarra emakumeen kasuetan eta akats teknikoekin azken atalean—ez du lagundu ahotsen tonu monotonoa hobetzen. Gauzak horrela, Ciudad Juarezeko emakumeen kontrako krimenak salatzen duen eszena bikaina izango da lan honetatik hobe- biekien gogoratuko duguna.

Konpainia: Teatre Lliure.

Egilea: Roberto Bolaño.

Zuzendaritza: Alex Rigola.

Lekua: Arriaga antzokia (Bilbo).

Eguna: Otsailaren 1a.



Roberto Bolaño. JULIAN MARTIN

Kalean da otsaileko

aizu!

- Glutenik ez, arren!
- Zpeiz Mukaki, tradizioa iraultzen
- Dilin-dalan!, kanpaiak Areantzian
- Eguzki irratia, 25 urteko uhin gozoak
- Abel Barriola txokotik
- Jantzi maskarak!